

Prentsa oharra

Nota de prensa



Oroitzapen ekitaldiak abuztuaren 31ko hondamendia gogorarazteko

Egun osoko egitaraua aurkeztu du Eneko Goia alkateak, parte-hartzaile ezberdinekin batera.

Bi urteko geldialdiaren ondoren, donostiarrak kalera irtengo dira hiriak 1813an jasandako erreketeta eta suntsiketara oroituz

1813ko abuztuaren 31an tropa ingelesen eta portugaldarrek hiria menderatu ondoren, su eman zioten. Kale bakarra utzi zuten ukitu gabe, ostatu hartzeko balio izan ziena okupazioak iraun zuen denboran. Gaur egun, Abuztuaren 31 kalea bezala ezagutzen dugu. Aspalditik, egun horretako ezbeharrak gogora ekartzeko helburuarekin hainbat ekitaldi ospatzen dira.

Besteak beste, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, oroitzapen desfilea eta hirian gertatutako asalto eta suntsipenaren antzespina ikusi ahal izango dira Zuloaga plazatik abiatu eta Parte Zaharreko hainbat kaleetan barrena.

Ekitaldirik solemneena eta karga sinboliko handiena duena danborradak Boulevardeko kioskoaren aurrean elkartzen direnean eta minutu bateko isilunea egiten dutenean egingo da, ondoren San Sebastian Martxa jotzeko.

21:30ean, hiriko eliza ezberdinetatik kanpai hotsak entzun ahal izango dira, eta Abuztuaren 31 kalean argiak itzali eta kandelak piztuko dira. Suzirien argitan zeremonia paseoa egingo da. San Bizente ataritik hasiko da, Donostiako Ereserki Zaharraren doinuaz, eta Santa Maria elizaren atarian amaituko da, Jose Maria Usandizagaren Abuztuaren 31ko hildakoen martxaren airea lagun.

Hiriko alkate Eneko Goiak eskerrak eman nahi dizkie herritar guztiei, baita elkarte gastronomiko, instituzio eta erakunde ezberdinei ere, hiriak duela 200 urte jasandako sarraskia gogorarazteko urtez urte egindako lanagatik.

Abuztuak 31ko oroitzapen egitaraua:

- **11:30.** Elizkizun Nagusia San Vicente elizan, Easo Araoz Gazte abesbatza, Aiert Beobide dantzaria eta Udaleko Txistulari taldea.
- **12:45.** Lore eskaintza Ixas Atean (Portaletas).
- **17:00.** Patiñako elkarteak Koruko Ama Birjinaren plazatik Zuloaga plazaraino hurbildu.
- **17:15.** Indar aliatuak Kursaaletik Zuloaga plazaraino hurbildu.
- **18:00.** Urteurreneko desfilea Zuloaga plazatik irten.
- **19:00.** Minutuko isilunea Bulebarreko kioskoan.
- **19:30.** Bretxako eraso eta hiriaren okupazioa itxuratu.
- **21:00.** Gazteluaren eraso eta Donostiaren erreketeta Zuloaga plazan antzeztu.
- **21:30.** Kanpai hotsak hiriko eliza desberdinetan eta Abuztuaren 31 kalean argiak itzali eta kandelak piztea.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Suzirien argitan zeremonia paseoa egingo da. San Bizente ataritik hasiko da, Donostiako Ereserki Zaharraren doinuaz, eta Santa Maria eliz atarian amaituko da, Jose Maria Usandizagaren Abuztuaren 31ko hildakoen martxaren airea lagun.

Donostiako Udalaren Txistulari Taldea, Easo Araoz Gazte abesbatza, Santa Cecilia abesbatza, Gaztelupe abesbatza, Aiert Beobide dantzaria, Andoni Aleman prosalaria eta Xabier Otaegiren aurkezpenarekin.

Donostian, 2022ko abuztuaren 24an